

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

2/2021 Foru Agindua, urtarrilaren 5koa. Behin betiko onestea, zenbait baldintzarekin, Guardiako udalerriko 19 poligonoko 54 lurzatian upeltegi bat ezartzeko plan bereziaren espedientea

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 166/2018 Foru Aginduaren bidez (2018ko ekainaren 8ko ALHAO, 66. zk.), aldeko irizpenarekin eman zen Guardiako udalerriko 19 poligonoko 54 lurzatian (Araba) upeltegi bat ezartzeko plan bereziaren ingurumen txosten estrategikoa, baldintza batzuk ezarrita, bat etorri Ingurumen Ebaluazioaren 21/2013 Legeak ezartzen duenarekin.

Alkatearen 2018ko abuztuaren 28ko dekretu baten bidez, hasierako onespena eman zitzaion Guardiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, 19 poligonoko 54 katastro lurzatian, upeltegi bat jartzeko plan bereziaren espedienteari, bai eta hura jendaurrean jartzeari ere. Azken hori, ALHAOn (103. zk., 2018ko irailaren 7koa) eta El Correo egunkarian (2018ko abuztuaren 31koa) iragarkiak argitaratuz egin zen.

Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, Udalak, 2018ko urriaren 30eko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion espedienteari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalaren martxoaren 12ko 2/2019 bilkuran, "Guardiako 19 poligonoko 54 lurzatian upeltegi bat ezartzeko plan berezi" aren espedientearen aldeko txostena egin, eta Uraren Euskal Agentziak (URA) egindako aldeko txostena erantsi zuen.

Guardiako Udalaren idazkia jaso zen Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean, 2019ko irailaren 26an; haren bidez, Guardiako Udalak Guardiako udalerriko lurzoru urbanizaezineko 19 poligonoko 54 katastro lurzatian upeltegi bat ezartzeko plan bereziaren espedientea helarazi zion Aldundiari, behin betiko onesteko.

2019ko urriaren 16ko idazkiaren bidez, Ingurumen eta Hirigintza Sailak Guardiako Udalari jakinarazi zion espedientearen zenbait akats daudela.

Guardiako Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrearen 2020ko azaroaren 3ko eta 13ko sarrera dataz, eskatutako dokumentazioaren zati bat igorri zuen.

2020ko azaroaren 18ko beste idazki baten bidez, Ingurumen eta Hirigintza Sailak Guardiako Udalari jakinarazi zion 2019ko urriaren 16ko errekerimenduan aipatutako espedienteko akats batzuek bere horretan dirautela.

Guardiako Udalak eskatu zitzaion gainerako dokumentazioa bidali zuen, zeina Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Nagusian 2020ko abenduaren 22an sartu baitzen, lehen aipatutako errekerimendua betez.

Aurrekari horiei honako oinarri hauek aplikatzea dagokie:

Lehenengoa. Sustapen pribatuko espediente honen xedea da Guardiako udalerrian (lurzoru urbanizaezina, babes berezia ez daukana; 19 poligonoa, 54 katastro lurzatia) upeltegia eraikitzeke plan berezia izapidetzea.

Plan berezian jarduera garatzeko zehaztutako eremuak hauexek hartzen ditu bere barruan: 19 poligonoko 54 lurzatia (15.753 m²) eta haren aurreko bide tartea; hain zuzen ere, A-4203 errepidearen tarte bat eta 60-04-031-002-68 gisa erregistratutako landa bidearen tarte bat.

Lurzati hori lurzoru urbanizaezinean dago, eta honako hirigintza kalifikazioa du: “Babesteko lurzoru urbanizaezina eta/edo komunikazio eta azpiegitura sareetarako erreserba,” “Itxuraberritu beharreko baso zonak babesteko lurzoru urbanizaezina” eta “nekazaritza intereseko zonak babesteko lurzoru urbanizaezina”. Azken kalifikazio horrek upeltegia eraikitzea proposatzen den lurzatiaren zatia hartzen du. Kategoria horretan, Guardiako udalerriko plangintzako arau subsidiarioek aukera ematen dute upeltegiak eraikitzeko (113. artikulua). Jarduera hori arautzen duten hirigintza parametroak hirigintzako arau horretako 114. artikuluan “urteko ardoa egiten duten upeltegietarako” ezartzen direnak dira.

Etorkizuneko upeltegiaren ekoizpen zenbatetsia, memorian azaldutakoaren arabera, urteko 250.000 litro baino gutxiago izango dira; beraz, Guardia - Arabako Errioxako LPParen 1. aldetan ezarritako “eraldatzeko instalazio txiki”aren definizioan sartuko litzateke.

Bigarrena. Martxoaren 12ko 2/2019 bilkuran, EAELABk erabaki zuen Guardiako 19 poligonoko 54 lurzatiaren ardo upeltegia eraikitzeko plan bereziaren espedientearen aldeko txostena egitea, eta ura dela eta, URA agintziaren aldeko txostena jasotzen du.

Zehazki, espedientearen lurralde antolamenduko tresnetara egokitzeari dagokionez, EAELABk egindako txosten proposamenak ondorioztatzen du espedienteak betetzen dituela 34. artikuluan ezarritako baldintzak.

Hirugarrena. Nekazaritza eta Basozaintzako LPSari dagokionez, plan bereziak xede duen eremuak nekazaritza eta basozaintzako eta landazabaleko kategoria dauka esleituta, eta haren zati bat balio estrategiko handiko azpikategorian dago.

Zonakatze horretan, upeltegiaren erabilera onargarria da, eragina aztertu eta LPSan adierazitako baldintzetan neurri zuzentzaileak sartu ondoren.

2019ko urtarrilaren 16an, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak txostena eman zuen, zeinetan baloratu baitzuen eraginpeko balio estrategiko handiko lurzoruaren gainean jarduerak izango duen eragina, eta onargarritzat jo zuen, nekazaritza arloko eragina ebaluatzeko protokoloa egin ondoren.

Laugarrena. Ingurumenaren txosten estrategikoan, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 166/2018 Foru Aginduaren bidez egina eta 2018ko ekainaren 8ko ALHAOn (66. zk.) argitaratua, azaltzen da hirigintza agirian sartu behar direla ingurumeneko agiri estrategikoan jasotako neurri guztiak bai eta beste neurri osagarri batzuk ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2019ko urtarrilaren 25ean egindako txostenean adierazten den bezala, lekuz aldatze hori partzialki baino ez da egin, eta honako neurri hauek hirigintza dokumentuan sartzeke daude:

- “Upeltegiaren bizialdi erabilgarriaren uneren batean kanpoko argiren bat sartzea erabakitzen bada, irizpide hauek kontuan izan beharko lirateke:

- Kanpoaldean ahalik eta argi gutxien jarriko da; upeltegiak bere eginkizuna betetzeko behar direnak bakarrik ezarriko dira. Argien argiztapen potentzia txikia izango da.

- Kanpoaldeko argiztapen sistemak, instalatuz gero, eta haiek banatzeko moduak bermatuko dute argi gutxi sartuko dela upeltegi ondoko landaretza autoktonodun eremuetan; hain zuzen ere, Lasernako abariztian.

- Uhalde enara (*Riparia riparia*) kudeatzeko planean jasotako zehaztapenak errespetatu beharko dira. Plan hori Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 7ko 22/2000 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen eta 2000ko 73. zenbakidun ALHAOn argitaratu zen, martxoaren 27koan.”

Bosgarrena. 2019ko maiatzaren 30ean, Sustapen Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Orokorrak aldeko txostena egin zuen zortasun aeronautikei dagokionez, eta adierazi zuen plan berezian sartu behar direla Logroño-Agoncillo aireportuaren zortasun aeronautikoak.

Horri dagokionez, egiaztatu da ez direla zuzen sartu hirigintza agirian Logroño-Agoncillo aireportuaren zortasun aeronautikoei dagozkien mugak.

Seigarrena. 2019ko abenduaren 11n, AFAko Errepide Zerbitzuak aldeko txostena eman zuen, upeltegia eraikitzeko zaintza baimenean ezarritako baldintza batzuk betetzeari lotuta (Bide Azpiegituren zuzendariaren uztailaren 29ko 1427/2019 Ebazpena). Baldintza horietako batek adierazten du lurzatiaren barneko bideak handitu behar direla, errepidearekiko loturan, sarbide zona seguruagoa gaitzeko.

Zazpigarrena. Agiria eta errekerimenduaren erantzun gisa aurkeztutako dokumentazioa aztertu dira eta egiaztatu da bat datozela, oro har, Guardiako Udalaren Hirigintza Plangintzan, lurralde antolamenduan eta aplikatu beharreko gainerako legerian ezartzen denarekin. Halere, badira zuzendu beharreko zenbait gauza. Hauexek dira:

1. "1 agiria. Informazio eta justifikazio memoria" dela eta:

a. Idatzizko dokumentazioan ez da behar bezala identifikatzen ez kuantifikatzen plan bereziaren eremua; izan ere, LPParen 34. artikulua ezartzen duen eta dokumentazio grafikoan jasotzen den bezala, lurzatiak aurrez aurre duen bide zatia jaso behar du. Ondorioz, memoriaren 7.1 apartatua eta araudiko 1. artikulua zuzendu behar dira.

b. Osatu eta zuzendu egin behar dira 7.2 apartatuko mahasti landaketari lotutako azaleraren justifikazioa eta deskribapena, 2020ko abenduaren 22an aurkeztutako dokumentazio errekerimenduari erantzuteko agirian emandako informazioarekin.

c. Eguneratu egin behar dira 8. eta 8.6 apartatuetan lurralde plan sektorialeiei buruz egiten diren erreferentziak, ez daudelako eguneratuta.

d. Ordenantzen 9. artikuluan jasotako eremuaren kalifikazio orokorra indarrean dauden arau subsidiarioen arabera osatu behar da, eta plan bereziaren eremuaren lurzoru urbanizaezineko zona guztiak adierazi behar dira.

e. Ordenantzen 10. artikuluan proposatutako zona banaketa osatu egin behar da, ez baitu jasotzen ez bide publikoa ez ingurumen ebaluazioaren ondoriozko konpentsazio landaketari dagokion berdegunea. Gainera, zona bakoitzaren azalera adierazi behar dira, haien batura eremu osoarena izan dadin.

f. Ordenantzen 16. artikulua osatu eta zuzendu behar da, ez duelako mahastien zona jasotzen eta arautzen, eta, konpentsazio landaketako berdeguneari dagokionez, ez dagoela adierazten da, eta hori ez dator bat 14.2 apartatuan adierazitakoarekin.

g. Ordenantzen 17. artikulua, zeinak eraikitako sistemaren zonak arautzen baititu, zuzendu behar da, honako honen arabera:

– Baimendutako erabileren, erabilera bateragarrien eta gehieneko okupazioaren erregulazioa falta da.

– Mugekiko bereizketaren erregulazioa ez da osoa eta ez dator bat dokumentazio grafikoan planteatutakoarekin; izan ere, ez da kontuan hartu lurzatiak aurrez aurre duen errepidearekiko tartea.

– Artikulu honetan ez dira sartu energia berriztagarriak erabiltzeari buruzko baldintzak, Guardiako (Arabako Errioxa) Lurralde Plan Partzialaren 34.2.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

h. Urbanizazio obrak eta, hala badagokio, eraikuntza obrak gauzatzeko urratsen plan batekin osatu behar da 12. apartatua.

i. Ingurumen ebaluazioaren ondoriozko konpentsazio landaketaren kostua jaso behar du 13. apartatuko bideragarritasun ekonomikoaren azterketak.

2. "2 agiria. Planoak (informazio eta antolamendu planoak)" agiriari dagokionez, zehazki 05 planoan, hainbat gauza ikusten dira:

– Zonen nomenklaturak bat etorri behar du plan berezia arautzen duten ordenantzen 10. artikuluan proposatutako zonakatzearekin.

– Landa bidearekiko ezarritako atzeraemanguneak ez du betetzen Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erabilera, kontserbazio eta zaintzarako otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauaren 17. artikuluan ezarritako jabari publikoko zonaren kanpoko ertzarekiko 8 metroko gutxieneko tartea.

– Memorian adierazitako aparkaleku plazak grafiatu behar dira.

3. Dokumentu teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, dokumentazioa ez da aurkeztu fitxategi editagarrietan; zehazki esateko, planoak *.dwg –kasuan kasuko plumilladun *.ctb fitxategia gehituz– edo *.shape luzapeneko fitxategietan, eta testua, berriz, *.doc edo *.docx luzapeneko fitxategian.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onestea Guardiako udalerriko lurzoru urbanizaezineko 19 poligonoko 54 lurzatian upeltegi bat ezartzeko plan bereziaren espedientea, baldintza hauek ezarrita:

1. Ordenantzen artikuluetan eta plan bereziko dokumentazio grafikoan sartzea Logroño-Agoncillo aireportuaren zortasun aeronautikoei buruzko mugak, Sustapen Ministerioako Abiazio Zibileko Zuzendaritza Orokorra 2019ko maiatzaren 30ean egin zuen txostenean jasotzen denaren arabera.

2. Hirigintza agirian sartzea Guardiako 19 poligonoko 54 lurzatia upeltegia ezartzeko plan bereziaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzen duen Ingurumen eta Hirigintza diputatuaren maiatzaren 25eko 166/2018 Foru Aginduan adierazitako ingurumen integratioko neurriak, zeinak ez baitira helarazi eta txosten honen laugarren oharpenean transkribatu baitira.

3. Proposatutako zonakatzea zuzentzea, zehazki "Bide sistema. Sarbidea eta aparkalekua", AFAko Errepide Zerbitzuaren 2019ko abenduaren 11ko txostena betetzeko, lurzatiaren barruko bideak zabalduz, errepidearekiko loturan, sarbide seguruagoa izateko, bat etorri errepideen zaintzaren espedientean upeltegia eraikitzeo adierazitakoarekin (Bide Azpiegituren zuzendariren uztailaren 29ko 1427/2019 Ebazpena).

4. "1 agiria. Informazio eta justifikazio memoria" agiriaren alderdi hauek zuzentzea:

a. Behar bezala identifikatzea eta kuantifikatzea plan bereziaren eremua; izan ere, LPParen 34. artikulua ezartzen duen eta dokumentazio grafikoan jasotzen den bezala, lurzatiak aurrez aurre duen bide zatia jaso behar du. Ondorioz, memoriaren 7.1 apartatua eta araudiko 1. artikulua zuzendu behar dira.

b. Osatu eta zuzentzea 7.2 apartatuko mahasti landaketari lotutako azaleraren justifikazioa eta deskribapena, 2020ko abenduaren 22an aurkeztutako dokumentazio errekerimenduari erantzuteko agirian emandako informazioarekin.

c. Eguneratzea 8. eta 8.6 apartatuetan lurralde plan sektorialeiei buruz egiten diren erreferentziak, ez daudelako eguneratuta.

d. Osatzea ordenantzen 9. artikuluan jasotako eremuaren kalifikazio orokorra indarrean dauden arau subsidiarioen arabera, eta plan bereziaren eremuaren lurzoru urbanizaezineko zona guztiak adierazi behar dira.

e. 10. artikuluan proposatutako zona banaketan, aintzat hartzea bide publikoak eta ingurumen ebaluazioaren ondoriozko konpentsazio landaketari dagokion berdegunea, eta zona bakoitzaren azalera ere adieraztea, haien batura eremu osoarena izan dadin.

f. Ordenantzen 16. artikuluari mahastien zonaren erregulazioa eranstea, eta konpentsazio landaketako berdeguneari dagokionez jarritakoa zuzentzea, ez baitator bat 14.2 apartatuan adierazitakoarekin.

g. Zuzentzea ordenantzen 17. artikulua, zeinak eraikitako sistemaren zonak arautzen baititu, honako honen arabera:

– Baimendutako erabileren, erabilera bateragarrien eta gehieneko okupazioaren erregulazioa eranstea.

– Mugekiko bereizketaren erregulazioa ez da osoa eta ez dator bat dokumentazio grafikoan planteatutakoarekin; izan ere, ez da kontuan hartu lurzatiak aurrez aurre duen errepidearekiko tartea.

– Artikulu honetan sartzea energia berriztagarriak erabiltzeari buruzko baldintzak, Guardiako (Arabako Errioxa) Lurralde Plan Partzialaren 34.2.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

h. Urbanizazio obrak eta, hala badagokio, eraikuntza obrak gauzatzeko urratsen plan bat sartzea 12. apartatuan.

i. Ingurumen ebaluazioaren ondoriozko konpentsazio landaketaren kostua jasotzea 13. apartatuko bideragarritasun ekonomikoaren azterketan.

5. "B agiria. Planoak (informazio eta antolamendu planoak)" agiriari dagokionez, zehazki 05 planoan, hauexek zuzentzea:

– Zonen nomenklaturak bat etorri behar du plan berezia arautzen duten ordenantzen 10. artikuluan proposatutako zonakatzearekin.

– Landa bidearekiko ezarritako atzeraemanguneak ez du betetzen Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erabilera, kontserbazio eta zaintzarako otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauaren 17. artikuluan ezarritako jabari publikoko zonaren kanpoko ertzarekiko 8 metroko gutxieneko tartea.

– Memorian adierazitako aparkaleku plazak grafiatu behar dira.

6. Dokumentu teknikoaren euskarri informatikoa dela eta, zuzendutako dokumentazio guztia aurkeztea, txosten honetan adierazitako baldintzekin, *.pdf luzapeneko fitxategietan eta artxibo editagarrietan; zehazki, planoak *.dwg luzapeneko fitxategietan –dagozkion arkatzen *.ctb artxiboa aurkeztuta– edo *.shape luzapenekoetan eta testua, *.doc. o *.docx luzapeneko fitxategian.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezzen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 2a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO